



Erroibarko Udalak, 2023ko maiatzaren 3an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza.

Hasierako onespeneraren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 149. zenbakian, 2023ko uztailaren 18an, argitaratu zen. Jendaurreko epean inork ez zuen alegaziorik aurkeztu. Beraz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraituz (maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen artikuluko hori), behin betiko onetsi da ordenantza hori, eta osorik argitaratu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

2024ko martxoaren 7an, behin betiko onespenera argitaratu zen 49. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta argitaratu eta biharamunean sartu zen indarrean.

2025eko maiatzaren 27an, herri-lurren ordenantzaren aldaketaren behin betiko onespenera argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 104. zenbakian, hasierako onespenera eman ondoren (2025eko apirilaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 65. zenbakia). Aldaketa argitaratu eta biharamunean sartu zen indarrean, eta ordenantza honela gelditu zen:

Lintzoain, 2025eko ekainaren 9a.-Alkatea, Leire Remiro Esnoz

HERRI-LURREN APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

ATARIKOA

Nafarroako toki administrazioaren eskumena da bere helburuak lortzeko behar dituen baliabideak eskuratzeko eta ondasunak arautzeko. Baliabide horien artean eta, zehazki, tributuz besteko baliabideen artean daude udalerrien herri-ondasunen aprobetxamenduak (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 5.1.a).2 artikulua).

Ezarri nahi den erregulazioa bat dator gai horri buruz indarrean dagoen legeriarekin eta aprobetxamendu horietarako prozedura proportziozkoak ezartzen ditu, araudiarekin bat datozenak, onuradun izan daitezkeen herritarrei ezinbesteko segurtasun juridikoa ematen zaiela bermatzeko.

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Xedea.

Ordenantza honek arauak ezartzea du xede, Erroibarko Udaleko herri-lurretako ondasunen administrazioa, erabilera, defentsa, berreskuratzea eta aprobetxamendua erregulatzeko.

2. Artikulua. Definizioa.

Herri-lurretako ondasunak dira herri honetako bizilagun guztiek aprobetxatu eta erabil ditzaketenak.

3. Artikulua. Ezaugarriak.

Herri-ondasunak besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira eta ez dute beren gain tributurik izanen.

Haien izaera eta tratamendu juridikoan ez da aldaketarik izanen, edozein dela ere haiek aprobetxatu edo erabiltzeko era.

4. Artikulua. Araubide juridikoa.

Erroibarko herri-lurretako ondasunak xedatu, administratu, aprobetxatu eta antolatzeko ahalmenak Udalarari dagozkio, arau hauetan azaltzen den eran: uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta haren erregelamenduzko xedapenak; Ondasunen erregelamendua (urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretua); Nafarroako Foru Zuzenbide Administrazioaren gainerako arauak; herri-lurren ordenantza hau eta, bestela, Foru Zuzenbide Pribatuaren arauak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 40. artikuluko hirugarren apartatua xedatua deusetan galarazi gabe.

II TITULUA.- ADMINISTRAZIOA ETA XEDAPEN EGINTZAK

5. Artikulua. Udalaren ahalmenak herri-ondasunei dagokienez.

Herri-lurretako ondasunak xedatu, administratu, aprobetxatu eta antolatzeko ahalmenak Erroibarko Udalarari dagozkio, ordenantza honetan azaltzen den moduan.

Herri-lurretako ondasunei buruz Udalak hartzen dituen erabakiek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritako kasuetan.

6. Artikulua. Desafektazioa, saltzeko edo trukatzeko.

Lurzati txikiak saldu edo trukatzeko desafektazioa egin aurretik, Nafarroako Gobernuak haien onura publiko edo soziala deklaratu beharko du eta, hori baino lehen, Erroibarko Udalak justifikatu beharko du dagoen asmoa ez dela beste bide batzuen bitartez lortzen ahal, hala nola lagapena eginez edo kargak ezarriz, horiek lehentasunezko aukerak baitira.

Herri-lurretako ondasunak desafektatu ondoren beste batzuei lagatzeko edo kargak ezartzeko hartzen diren erabakietan, itzultze klausula bat sartuko da, egintza horien helburuak edo baldintzak desagertu edo betetzen ez diren kasuetarako.

Halakorik gertatzen bada, lur horiek Udalaren ondarrera itzuliko dira herri-lurretako ondasun gisa.

6/1990 Foru Legea eta haren erregelamenduzko xedapenetan eta Ondasunen gaineko Erregelamenduaren II. tituluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

III TITULUA.- HERRI-ONDASUNAK DEFENDATU ETA BERRESKURATZEA

7. Artikulua. Udalaren betebeharrak herri-ondasunei dagokienez.

Udala herri-lurretako ondasunak zaindu, defendatu, berreskuratu eta hobetzen ahaleginduko da, eta kontra eginen dio horiendako kaltegarri izan daitekeen edozein pribatizazio saio edo ekintzari.

8. Artikulua. Jabetza berreskuratzea.

Udalak berez berreskuratzen ahalko du, noiznahi, herri-lurretako ondasunen jabetza, aldez aurretik dagokion prozedura abiarazita, ofizioz edo salaketa bidez, interesdunari entzunaldia emanda eta udal idazkariak edo legelariak txostena idatzita, non agertuko baitira usurpatu den ondasuna egiaztatzeko behar adina agiri eta froga. Hori guztia Toki Administrazioari buruzko foru legerian ezarritako prozedurari jarraikiz.

Era berean, Udalak egintza zibilak sustatuko ditu, horiek beharrezkoak direnean, herri-lurretako ondasunak berreskuratzeke eta defendatzeko.

9. Artikulua. Defentsa eta kontserbazioa.

Udalak Jabetza Erregistroak igortzen dizkion ediktuen berri emanen dio Nafarroako Gobernuari, lursailen immatrikulazioa edo herri-lurrekin mugakide diren lursailen hedadura soberakina dela eta. Udalak osoko bilkuran hartu beharko du jakinarazpen horiei buruzko erabakia.

10. Artikulua. Herri-ondarea berreskuratzea.

Erroibarko Udalak, ondasunak herri ondarerako berreskuratzearren eskualdakotarik egin nahi izanez gero, Nafarroako Gobernuaren aurretiazko baimen berariazkoa beharko du, aplikatu beharreko araudiak hori ezartzen duenean.

11. Artikulua. Eskubideen iraungipena.

Udalak, baimen, emakida edo beste titulu baten kariaz herri-ondasunen gainean sortutako eskubideak eta haiek ekarritako okupazioak iraungitzeko, administrazio bidea erabiliko du beti eta ahalmen hertsatzaileez baliatuko da. Aldez aurretik kalte-ordaina eman ala ez, zuzenbidearen arabera izanen da.

12. Artikulua. Kontratuen interpretazioa.

Erroibarko Udalak, herri-lurretako ondasunei buruzko kontratuetan partaide denean, kontratuak interpretatuko ditu, eta haiek betetzean sortzen diren zalantzak argituko.

Interpretazioen gaineko erabaki horiek berehala hartuko dute indarra, galarazi gabe kontratistek jurisdikzio-bidean behar den deklarazioa lortzeko duten eskubidea.

13. Artikulua. Herritarren ekimena.

Erroibarko Udalak herri-lurretako ondasunak defendatzeko bidezko diren ekintzak sustatzen ez ditenean, herritarren ekimena posible izanen da, uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat Horrek aurrera eginez gero, sortutako gastuak itzuli beharko dizkie herritarrei Udalak.

IV TITULUA.- HERRI-ONDASUNEN APROBETXAMENDUA

I KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

14. Artikulua. Aprobetxamenduen xedea.

Udala herri-lurren ekoizpena abian jartzen, hobetzen eta egoki aprobetxatzen ahaleginduko da eta duten izaera sozialarekin bateragarri eginen du.

Herri-lurren aprobetxamendua egiterakoan, kontuan hartuko da baliabide natural berriztagarriak direla, eta bateragarri eginen dira haien erabilera arrazoizkoa eta zaintza egokia.

Ordenantza hau onartzen denetik egingo diren herri-aprobetxamenduak ordenantza honetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Kintoko Mendietako ipar-isurialdeko bazkalekuen aprobetxamendua ordenantza honetatik kanpo geldituko da, izan ere, 1856ko abenduaren 2ko Mugen Hitzarmenean ezarritakoaren menpe jarraituko du.

15. Artikulua. Aprobetxamendu motak.

Hauek dira ordenantza honek arautzen dituen aprobetxamenduak:

- a) Herri-larreen aprobetxamendua
- b) Zuraren eta egurraren aprobetxamenduak.
- c) Beste aprobetxamendu batzuk
- d) Bizilagunek herri-lurretan sorturiko luberriak.
- e) Herriko ondasunen hobekuntzak.
- f) Herriko baratzeen aprobetxamendua.

16. Artikulua.- Izaera orokorrean Udala honetako herri-lurretako aprobetxamenduen onuradunak familia unitateak izango dira, beti ere haien titularrak honako baldintzak betetzen baditu:

- a) Adinez nagusia izatea edo adingabe emantzipatua edo legez gaitua.
- b) Biztanle Erroldan bizilagun gisa agertzea urte beteko antzintasunez gutxienez, etxeko egur lotearen aprobetxamenduaren kasuan izan ezik, horretarako 9 hilabeteko antzintasuna aski izanen baita.
- c) Benetan eta jarraian bizitzea Udalerrin honetako edozein herritan, urtean bederatzi hilabetez, bederen.
- d) Udal honekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

Familia unitateko kideak dira etxebizitza berean bizi diren guztiak. Hala ere, familia unitate independentea da guraso erretiratuek osaturikoa edo biak hirurogeita bost urte baino gehiago izatea, beti ere haien diru-sarrerak, orotara, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago badira.

Horrelakoetan Udalak erabakiko du herri-aprobetxamenduen familia unitate onuradunak zeintzuk diren.

II KAPITULUA.- HERRI-LARREEN PROBETXAMENDUA.

17. Artikulua.- Herri-larreen aprobetxamendua era hauetara egingen da eta honako hurrenkerari jarraituz:

- a) Herritarrendako esleipen zuzenaren bidez
- b) Ohiturari jarraikiz.
- c) Enkante publikoren bidez adjudikatuta.

Herri-larreen aprobetxamendua Ordenantza honetako 4. Artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten familia unitateetako bizilagun titularrei zuzenean adjudikatuko zaie.

Nolanahi ere, osorik edo zati bat Nafarroako Gobernuaren laguntzaz hobetzeko planaren bidez hobetutako bazkalekuak bere jarduera nagusia abeltzaintza duten Erroibarko abeltzaintzako bakarrik izanen dira, hobekuntza egiten denetik gutxienez 8 urterako

18. Artikulua.- (aldata 104 zenbakidun NAO – 2025/05/27). Ordenantza hauetan arautzen diren herri-larreak hainbat poligonotan daude, hona hemen:

1. Sorogain, guztira 689 Ha, horietatik 550 Ha bazkatzeko eremu garbiak dira eta 148 Ha zuhaitzak dituzten bazkatzeko eremuak.

Aldi berean, Sorogaingo bazkalekua bi azpipoligonotan banatzen da: Arbilleta eta Aztakarri/Zelaieta.

2. Measkoitz, 48,52 Ha guztira, horietatik 20,72 Ha bazkatzeko eremu garbiak eta 27,81 Ha zuhaitzak dituzten bazkalekuak dira.

3. Ardaitz, 56,5 Ha, zuhaitzak dituzten bazkalekuak dira.

4. Txangoa, 70,1 Ha bazkatzeko eremu garbiak.

19. artikulua. (aldata 104 zenbakidun NAO – 2025/05/27). Eremu horietan orotara sar daitekeenazienda Hau da:

–Sorogain: 900 AzLU.

–Measkoitz: 12 AzLU.

–Ardaitz: 30 AzLU.

–Txangoa: 60 AzLU.

Salbuespenezko urteetan, Udalak, txosten teknikoa egin ondoren,azienda-zama baloratuko du du

20. Artikulua.-- Sartu ahalko denazienda kopuruaazienda motas bakoitzaren arabera ezarritako denez, hona hemen kontuan hartuko diren berdintasunak:

Azienda larri bakoitzeko	1,00 A.L.U
6 hilabetez goitiko behi 1	1,00 A.L.U.
6 hilabetez goitiko behor/zaldiko 1	1,30 A.L.U.

6 hilabetez goitiko ardi 1	0,13 A.L.U.
6 hilabetez goitiko mando 1	1,30 A.L.U.
6 hilabetez goitiko asto 1	1,00 A.L.U.
6 hilabetez goitiko ahuntz 1	0,13 A.L.U.

21. Artikulua.- Debeku da txerri azienda bazkatzea.

22. Artikulua.- Sorogaingo herri-larreen aprobetxamendua ordenantza honetako 16. Artikuluak ezarritako baldintzak betetzen dituzten familia unitateetako bizilagun abeltzain titularrei zuzenean adjudikatuko zaie.

23. artikulua. (aldataua 104 zenbakidun NAO – 2025/05/27). Ohiturari jarraituz, herri-larreak bazkatzeko eremu bakoitzaren arabera honela adjudikatuko dira:

-Sorogaingo bazkalekuak: bizilagun abeltzainei adjudikatuko zaizkie zuzenean, aurreko artikuluan aipatu moduan, eta "aziendak bertan" izeneko sistema erabiliko da, larratze estentsiboko araubidean.

Ezarritako azienda karga osatu ezean, bazkalekuen aprobetxamendua kanpoko abeltzainei adjudikatu ahalko zaie, ordenantza honetako 18. eta 19. artikuluetan ezarritako kopuruetara ailegatu arte.

-Measkoitzeko bazkalekuak: enkante publikoren bidez adjudikatuko dira.

-Ardaizko bazkalekuak: Ardaitzen bizi diren Erroibarko bizilagun abeltzainei zuzenean adjudikatuko zaizkie, eta, horrelakorik ezean, enkante publikoren bidez.

-Txangoako bazkalekuak: enkante publikoren bidez adjudikatuko dira.

24. Artikulua.- Herri-larreen aprobetxamendua zuzenean eta pertsonalki egingen da, eta ez da baimenik emanen azpierrementamendua egin edo beste batzuei lagatzeko. Horretarako, Erroibarko Udalak hartuko du herri larreak ez direla zuzenean aprobetxatzen herriko familia unitateko titularrek euren aziendak kentzen badituzte Nafarroako Gobernuak Abere Ustiategiaren Erregistrotik.

25. Artikulua.- Bazkalekuetan sartzean 6 hilabete baino gehiago duen azienda oro azienda larria kontsideratuko da.

Sorogaingo herri-larreak aprobetxatu nahi dituzten azienda larri guztiek, berdin kanpokoak zein Erroibarko abeltzainenak, Erroibarko siglak dituen "marka" tradizionala eraman beharko dute. Marka Udaleko kideek edo ordezkariak egingo dut ohiko era eta lekuetan.

26. Artikulua.- Ibarrean bizi diren 30 urte edo gutxiagoko abeltzainek eta abeltzaintza ustiategi baten titular gisa 4 urte edo gutxiago daramaten abeltzain berriek, udalak ezarritako kanonaren %10eko beherapena izango dute. Era berean, emakume abeltzain guztiek % 10eko murrizketa izango dute udalak ezarritako kanonean.

27. Artikulua.- Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamendua epe edo denboraldi hauetan egingen da:

a) Ibarreko aziendaren kasuan, urteko kanpaina marka egiten den egunean hasi eta abenduaren 15ean bukatuko da.

b) Kanpoko aziendaren kasuan, kanpaina urtero abenduaren 15ean butakuko da eta aurrerago zehaztuko den datetan hasiko da.

Udalak ez du zezenik sartzen utziko Sorogainen, eta bai, ordea, Burguete arrazako hazitarako zaldiak, ardi- eta ahuntz-arrak, honako kasu honetan:

1.- Udalak sarrera hori baimentzea, eta, animaliaaren kalitatea kontuan hartuta, dagokion kuota ordaintzetik salbuetsi ahal izatea.

28. Artikulua.-- Klimatologiako baldintzengatik edo bazkalekuen bolumenaren kalitateagatik egoki jotzen bada, Erroibarko Udalak erabaki dezake azienda sartzeko egunak aldatzea.

29. Artikulua.- Sorogaingo bazkalekuetan azienda sartuko duten Baigorriko abeltzainek, abelburu bakoitzeko kanona ordainduko dute; kanon hori Erroibarko Udalak urtero ezarriko du.

30. Artikulua.- Bazkaleku guztiak adjudikatzeko oinarritzko prezioa Erroibarko Udalak bilkuran hartuko duen erabakiaren bidez ezarriko da.

31. Artikulua.- Erroibarko Udalak kanonak aldizka eguneratuko ditu.

32. Artikulua.- 6/1990 Foru Legearekin bat etorritz, Ordenantza honetako "Ohiko usadioz" izeneko sistemaren bidez larreen aprobetxamenduaren onuradunek kanpainagatiko eta azienda espezieengatiko ordainduko duten kanona Erroibarko Udalak urtero finkatzen duena izango da.

33. Artikulua.- Kuota murriztua ezarriko da uztailaren 15etik aurrera Sorogaingo bazkalekuetan sartuko den ibarreko herritarren jabetzako ardi-, ahuntz-, zaldi- eta behi-aziendarentzat.

34. artikulua.- Erroibarko bizilagunek lehentasuna izanen dute Sorogaingo bazkalekuak aprobetxatzeko; hartara, urteko kanona zehaztu ondoren, Udalak bandoa kaleratuko du horien zenbatekoak eta Sorogaingo bazkalekuen erabilera baldintzak aditzera emateko.

Sorogainen azienda sartuko duten Erroibarko abeltzainek izena eman beharko dute udal idazkaritzan urte bakoitzeko apirilaren 1a baino lehen.

Ordaintzeko baldintzak: Sorogainen sartuko den aziendaren prezioaren %50 urte horretako apirilaren 30a baino lehen ordainduko da. Ordainketa azienda sartu baino lehen egin behar da. Gainerako %50a urte horretako uztailaren 31 baino lehen ordaindu behar da.

Aipatutako zenbatekoak ordaintzen ez dutenei Udalak ez die NPB (PAC) delakoarentzako hektarearik ziurtatuko, eta hurrengo urtean ezingo dute Sorogainen aziendarik sartu.

Uztailean sartuko den azindari dagokion kopuru guztia urteko ekainaren 30a baino lehen ordainduko da. Irailean sartuko den ardi-azienda abuztuaren 31 baino lehen ordaindu beharko da.

Marka egunetan markatzen ez diren azienda guztiek %10 gehiago ordainduko dute. Modu berean, azienda aldaketak egiten dituztenei %10 gehiago kobratuko zaie.

Baigorriko abeltzainek eta kanpokoek Sorogainen sartuko duten aziendaren kanona maiatzaren 15a baino lehen ordaindu beharko dute.

35. Artikulua.-- Udal honetako bazkalekuak aprobetxatuko dituen azienda orok ABEREEN OSASUNARI BURUZKO azaroaren 16ko 11/2000 FORU LEGEAN ezarritakoa betetzen duten osasun ziurtagiriak izan beharko ditu.

36. Artikulua.-- Udalak bazkalekuen hobekuntzaz arduratuko da, aprobetxatzeko egoera egokian egon daitezen.

37. Artikulua.-- Erroibarko Udalak, onuradunei hiru hilabete lehenagotik gaztigatuta, bazkalekuen aprobetxamenduen esleipenak bertan behera uzten ahalko ditu herri-lurretan hobekuntzak egin nahi baditu, eta argi utziko du aprobetxamendua bertan behera gelditzeak ez diola onuradunari kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik ekarriko.

38. Artikulua.-- Ez da onartuko Udalarekin zorrak dituzten abeltzainen aziendak herri-larreetan sartzea.

39. Artikulua.- Erroibarko Udalak, herri-larreen Batzordean, honako lanak egiteko ardura hartuko du: azienda kopurua kudeatu eta frogatzea, eskaerak onartzea, abeltzain bakoitzari ziurtatuko zaizkion zenbateko ekonomikoak eta hektareei dagozkienak banatzea.

40. Artikulua.- Udalak honela prestatuko du bazkalekuen hektareen ziurtagiria:

1.- Hektarea 1 ALU (U.G.M.) bakoitzeko, gehienez ere 70 A.L.U. abeltzaintza-ustiategi bakoitzeko, betiere eskatutako hektareek NPBrako ziurtagirietarako esleituta dauden hektareak gainditzen ez badituzte.

2.- Herri-larreak ziurtatzeko Udalak dituen baino hektarea gehiago eskatzen badira, lehentasuna izango dute ATP edo Lehentasunezko kalifikazioa duten ustiategiek. Gainerako azalera baldintza horiek betetzen ez dituzten ustiategien artean banatuko da, ustiategi bakoitzak sartzen duen aziendaren araberako koefizientea aplikatuz.

3.- Kasu berezietan, udalak ziurtatzeko azalera gehiago badu, ATP edo Lehentasunezko kalifikazioa duten ustiategien artean jakinaraziko da, hektarea gehiago eskatu ahal izateko, eta batzordeak erabakiko du. Udalak kasu bakoitza aztertuko du. Horretarako, NPB gauzatzen ari den teknikariak egindako justifikazio-agiria eskatuko da. Hori guztia batzordean aztertuko da.

4.- Izena eman duen aziendaren % 5eko errore-marjina ematea, baimendutako 70 A.L.U. gainditzen ez dituztenean. Handiagoa bada eta behar bezala justifikatuta ez badago, Udalak ez dio hektarearik ziurtatuko hurrengo urteko NPBan.

III KAPITULUA.- ZURAREN ETA EGURRAREN APROBETXAMENDUA

41. Artikulua.- Udalak egur-loteak esleitu ahalko dizkie ordenantza honen 16. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten bizilagunei.

Beste toki-erakunde batetik egur-lotea lortzen ez duten bizilagunek bakarrik izango dute eskubide hori.

Aprobetxamendua jasotzeko eskubidea duten bizilagunei egur-lotea eman ondoren, Erroibarko Udalak, egurra soberan balu eta udalerrinari komeni balitzaio, Erroibarren etxea eduki edo etxe bat erabili baina Ordenantza honetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez dituztenei, egur-loteak eman ahalko dizkie zozketa bidez.

Hartara, bandoa kaleratuko da interesatu guztiek izena eman dezaten; ondoren egur loteak zozketa bidez adjudikatuko dira, aldeztu aurretik Udalak ezarritako zenbatekoa ordaindu ondoren.

Modu berean, Erroibarko bizilagunek zuhaitzak erori direla jakinaraz diezaioke Udalari baita horiek aprobetxatzeko eskaera egin ere.

Horrelakorik gertatuz gero, Udalak behar den ebazpena emanen du, eta, beharrezkoa izanen balitz, Nafarroako Gobernuako Mendi Zerbitzuari markazioa eskatuko dio, horren ondotik zuhaitzak interesatuari adjudikatzeko, tasatutako prezioan.

42. Artikulua.- Erroibarko Udalak urtero finkatuko du familia unitateei adjudikatu beharreko egur loteen bolumena, haien beharren eta mendian dagoen egurraren arabera.

43. Artikulua.- Egurra, ahal dela, saldutako oihan aprobetxamenduen (adaburuak) hondarrak izanen dira, baita arbola kaxkar edo gaitzak jota daudenetatik, garbiketetatik etab. ateratakoa, eta inoiz ez zurgaiak diren zuhaitzetakoa.

44. Artikulua.- Epaitzak zuzenean onuradunak berak erabili beharko ditu, gehienez ere 8 hilabeteko epean, eta hark ezin izanen dizkio bertzeri eman edo saldu.

Esleipen-hartzaile batek ez badu aprobetxatzen ematen zaion egur lotea eta hurrengo urtean beste bat eskatzen badu, berriz ere aurreko urtekoa esleituko zaio.

Guztiz debekatua dago egurretarako emandako produktuak saldu edo eskuz aldatzea, baita bizilekura ez beste toki batera eramatea ere.

45. Artikulua.- Onuradunek izanen dute aurretik markatutako epaitzak ateratzeko erantzukizuna.

Lanetan istripuei aurrea hartzeari dagokionez, komenigarria litzateke azpimarratzea halako lanak adjudikaziodunetako bakoitzaren erantzukizunpean egiten direla, eta hark bere gain hartu behar dituela istripuei aurrea hartzeko beharrezkoak diren neurriak, besteak beste, egitekoa den lanetan norbera babesteko ekipamendua erabiltzeko betebeharra.

Onuradunak behartuta daude egurra bildu ondotik hondarrak bildu eta pilatzera. Hondar horiek ezin izanen dira pilatu ez bideetan, ez mendi-pistetan, ez eta oztopo izan daitezkeen lekuetan ere.

Landazainek ematen dituzten jarraibideei kasu egingen zaie. Egurra ateratzean debekaturik dago makinak erabiltzea hezetasuna baldin badago edo zola trinkoturik ez dagoenean. Erabat debekaturik dago zuhaitzak herrestan eramatea pisuzko makinak erabiliz. Artikulu honetan ezarritakoa betetzen ez dutenei aprobetxamendua ukatuko zaie hurrengo urtean.

Udalak eta/edo onuradunek egurra mozteko lanak eta/edo egurra menditik ateratzekoak kontratatzen badituzte, horretarako mugatutako eremuan soilik egingen dira, basogintza arloko administrazioak baimendutako egur kopuruarekin bat.

Udalak, etxerako egurra moztu eta ateratzeko lanak baliatuz, baso-masak eremu handiago batean hobetzeko lan osagarriak egin nahi baditu, basogintza arloko administrazioak baimendu beharko ditu lan horiek, etxerako egurrari eta besterenduei buruz Toki Administrazioak urtero egiten duen espedienteaz aparte, indarra duen legediarekin bat.

46. Artikulua.- Kontzesioa hartzen dutenek erantzun beharko dute, baldin eta aprobetxamendua dela-eta mendian kalte edo galerarik gertatzen bada, eta ordaina ematera beharturik egonen dira, baita dagozkiekeen zehapenak ordaintzera ere.

47. Artikulua.- Aprobetxamendu hauek Nafarroako Gobernuak ezarriko dituen jarraibide tekniko-fakultatiboen menpe egonen dira eta haren alde aurreko baimena beharko dute.

48. artikulua.- Udalak egur-loteen aprobetxamenduengatik kanona ezarri ahalko du eta kuota horiek aprobetxamendua hasi aurretik ordaindu beharko zaizkio Udalari.

IV KAPITULUA.- BESTELAKO HERRI APROBETXAMENDUAK

49. Artikulua.- Erlezaintza ustiategiak jartzea.

Herri-lurretan erlauntzak jartzeko baimena eman ahalko zaie erlezaintza ustiategia ezarri nahi dutenei.

Betebeharrak.

1. Erlategiak arautzen dituen 209/2002 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoa betez, eta irizpide orokor gisa, hona hemen zein diren zaindu beharreko tartearak, ondorengo elementu hauei dagokienez:

- a) Establezimendu kolektibo publikoak, eta hirigune eta biztanleguneak: 400 metro.
- b) Bizilekuak diren landa eremuko etxebizitzak eta abeltzaintzako instalazioak: 100 metro.
- c) Errepide nazionalak: 200 metro.
- d) Eskualdeko errepideak: 50 metro.
- e) Auzobideak: 25 metro.
- f) Mendiko pistak: erlauntzak alboetan jarriko dira, pasabidea oztopatu gabe eta 5 metrora.
- d) eta e) apartatuetan ezarritako tartea %50 murriztu ahalko da, erlauntza malda batean eta haien horizontaletik 2 metroko garaieran edo desnibelean badago.

Erlauntzek baldin badute gutxienez bi metro garai den hesia, eta erleek haren gainetik atera behar badute aipatu errepide, bide edo establezimenduaren aldera jotzen duen aurrealdean, ezarritako tartearak %75 murriztu ahalko dira kasu guztietan.

2. Erlauntz multzoa dagoela azaltzen duen seinalea jarri behar da, ikusteko moduko tokian eta irakurtzeko moduan; han azalduko da zer ustiategitakoa den, eta erleak dabiltzala ohartaraziko da, kasu guztietan.

3. Erlategiek ezinbestean bete beharko dute indarreko legeria, eta, zehazki, Erlategiak antolatzeke arauak ezartzen dituen otsailaren 22ko 209/2002 Errege Dekretuan edo haren ordezkari edo haren osagarri etortzen diren xedapenetan ezarritakoa.

4. Ordenantza honetan edo aplikatzekoa den legerian jasotako arauak betetzen ez dituenak, erlauntzak berehala kendu beharko ditu, eta/edo zigorra jasoko du.

Prozedura.

1. Interesdunak herri-lurra okupatzeko eskabidea aurkeztu behar du. Harekin batera aurkeztu behar ditu krokis bat, ustiategiaren kokapen zehatza eta okupatuko diren metroak azaltzen dituen, ustiategiaren erregistroaren ziurtagiria, bai eta dagokion osasun dokumentazioa ere. Ustiategia abian

ez badago, lursailaren lagapenari lotuta dagoela dioen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du, eta adierazitako dokumentazioa 3 hilabeteko epean entregatuko duela, Udalak adostutako okupazioari Nafarroako Gobernuak baimena ematen dionetik hasita.

Hala ere, Udalak xedatuko du kokapena eta okupazioak hartuko dituen metro kopurua, kontuan hartuta aurretik adjudikatu dituen aprobetxamenduak, inor kaltetu gabe edo inorekin gatazkarik sortu gabe.

2. Dokumentazio hori aurkeztu ondoren, Udalaren osoko bilkurak erabaki ahalko du okupazioa arautzen duen agiria hasiera batean onestea, eta espedientea jendaurrean jarriko da 15 egunez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren.

3. Jendaurrean egoteko aldia iraganik, espedientea Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, baimena eman dezan.

Udalak urtero finkatuko du aprobetxamendu horrengatik ordaindu beharreko kanona

50. Artikulua.- Herri-lurak sartuz eraturiko barrutietan, Nafarroako Ehiza eta Arrantzako 17/2005 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz egingen da ehizaren aprobetxamendua.

51. Artikulua.- Ondasun-uren emakida, herri-lurren okupazioa, herri-lurretan harrobiak ustiatzea eta herri-lurretan egin nahi den beste edozein aprobetxamendu edo hobekuntza, kasu bakoitzerako Udalak prestatzen dituen baldintza-agirien arabera egingen da. Gainera, jendaurrean eduki beharko dira 15 egunez gutxienez, eta Nafarroako Gobernuak onespenera eman beharko du.

V KAPITULUA.- BIZILAGUNEK HERRILURRETAN SORTURIKO LUBERRIAK

52. Artikulua.- Bizilagunek debeku dute herri-lurretan luberriak sortzea, Erroibarko Udalaren baimenik ez badute

Hau da jarraituko den prozedura.

a) Interesdunaren idatzizko eskabidea, Erroibarko Udalari zuzendua, herri-luberria sortzeko, luberritu nahi duen azalera, kokapena eta zertarako erabili nahi duen azalduz.

b) Erroibarko Udalaren eskatutako luberriaren onspena edo ukapena.

c) Udalak onspena emanez gero, espedientea Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, behin betiko onspena eman dezan.

53. Artikulua.- Bizilagunek luberritutako herri-lurren aprobetxamendua zortzi urtekoa izanen da.

54. Artikulua.- Kasu horietan, Erroibarko Udalak onuradunari kanona gutxitzen ahal dio, esleipen osorako nahiz zati baterako, hobekuntza amortizatzeko kontzeptu gisa.

Esleipen epearen gainerakoagatik Erroibarko Udalak ezarritako kanona ordaindu beharko da.

55. Artikulua.- Onuradunek zuzenean eta pertsonalki landu beharko dituzte luberritutako lurak eta ezin dituzte errentan eman edo ustiatu, lan pertsonala ez den bertze moduren baten bidez.

Bertzetik ere, onuradunek luberritutako lurren amankomuneko ustiapentzat hartuko dira, onuradunak kooperatibetan edo legez eratutako sozietateetan elkartzen badira, eta kide guztiak aprobetxamendu mota horren onuradunak badira.

Horretarako, direlako elkarte horiek Erroibarko Udalera agertu beharko dute haien eraketa erakusten duten agiriekin, kideen izen-abizenekin eta elkartearen helburuekin, ezertan ukatu gabe Erroibarko Udalak eskubidea duela egoki iruditzen zaion dokumentazioa eskatzeko, hori guztia ordenantza honetan xedatutakoa betetzen dela ziurtatzeko.

56. Artikulua. Ordenantza honi dagokionez, zuzeneko laborantza pertsonala izateko, onuradunek edo haren famili unitateko kideek egin behar dituzte lanak, ordenantza honetako 4. artikuluan jasotzen baitira bete beharreko ezaugarriak. Soldatapekorik ezin izanen dute hartu, non ez duten nekazaritzako urtaroen edo luberritzeko baimenaren gorabeherak horretara behartzen. Alabaina, zuzeneko laborantza pertsonala egiteko ahalmenik ez da galduko, Erroibarko Udalaren iritzian, laborantza pertsonala egitea eragozten dion eritasun edo aldi bateko bertze arrazoiengatik soldatapekorik hartzen denean. Horrelakoetan, Erroibarko Udalari jakinarazi beharko zaio 15 eguneko epean, onuradunek edo haren famili unitatekoek zergatik ezin duten ustiapeneko lanik egin, eta horretarako baimena eskatu beharko dute gorabehera horiek beren horretan dirauten bitartean.

Erroibarko Udalak egoki juzgatzen dituzten egiaztapenak egiten ahalko dituzte edozein unetan, luberritutako lurak zuzenean eta pertsonalki lantzen direla ziurtatzeko.

57. Artikulua. Luberritutako lurak zuzenean lantzen ez direla joko da ondoko kasu hauetan:

- a) Nekazaritzako makineria izanik, hura luberritutako lurak lantzeko erabiltzen ez dutenean.
- b) Erroibarko Udalaren Mendi Batzordearen txostenaren arabera Luberritutako lurak zuzenean eta pertsonalki lantzen ez direnean, ordenantza honen 12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
- c) Honako hauei dagozkien egiaztagiria eskatu ondoren, Udalak agindu epean aurkezten ez ditutenean: lurra lantzea, lehengaiak erostea eta produktuak saltzeko lanak, berek edo Erroibarko Udalak baimendutako pertsonak eginak.

58. Artikulua. Luberritzeko emandako lurretan itxiturak egin nahi izanez gero, Erroibarko Udalaren baimena beharko dute, eta itxitura horiek egurrezko hesolak izan daitezke edo zutoin alanbredunekin egindakoak. Debeku dira fabrikako obraz, adreiluz edo hormigoizko blokez egiten diren itxiturak.

59. Artikulua. Luberritzeko emaniko lurak eta jabe pribatua duten lurak ezin izanen dira batera hesitu.

60. Artikulua. Debeku da aprobetxamenduak onuradunen artean trukitzea, non ez den alde zuretik interesdunek eskatuta eta Erroibarko Udalak baimena emanda.

61. Artikulua. Onuradunek zuzen behar dituzte landu eta aprobetxatu emaniko lurak.

62. Artikulua. Onuradunek ezin izanen dituzte luberritzeko emaniko lurak erabili, Erroibarko Udalaren alde zurreko baimenik gabe, eskatu ez diren beste aprobetxamendu batzuetarako.

63. Artikulua. Kontzesioaren epea bukatuta, lurak Erroibarko Udalera itzuliko dira, egindako hobekuntza guztiak barne, eta egindako hobekuntza horiengatik onuradunak ezin izanen du inolako ordainik eskatu.

Direlako hobekuntza horiek oso-osorik itzuliko dira Erroibarko Udalera, eta eurek baimena emanen dute eramangarri diren hobekuntzak handik eramateko.

Hortaz, hobekuntza eramangarritzat hartuko dira eginiko itxiturak, eta onuradunak handik eramanen ahalko ditu kontzesio epea bukatu ondoren.

VI. KAPITULUA.- HOBEKUNTZAK HERRI-LURRETAKO ONDASUNETAN

64. Artikulua.- 1.- Erroibarko Udalak indarrrik gabe uzten ahal ditu aprobetxamenduen adjudikazioak, lur horiek honako xede hauek baldin badituzte:

- a) Haien gaineko kargak kentzea.
- b) Herri-lurra hobetzea.
- c) Gizarterako proiektuak egitea, inguruabar pertsonalak, familiarrak edo sozialak direla medio, beharrean daudela justifikatzen duten herritarrei laguntzeko.

2.- Proiektu horiek Erroibarko Udalak nahiz herritar interesdunek susta ditzakete eta lehentasuna izanen dute.

3.- Hona hemen halako kasuetan jarraitu beharreko bidea:

- a) Erroibarko Udalak osoko bilkuran hartutako erabakia, zeinak proiektua onetsiko baitu, eta ukitutako herri-lurren aprobetxamendua arautuko duen erregelamendua.
- b) Hilabeteko epean jendaurrean jartzea, eta Erroibarko Udalak osoko bilkuran hartutako erabakia, aurkezten diren alegazioei buruzkoa.
- c) Nafarroako Gobernuaren onespena.

65. Artikulua. Aprobetxamenduaren onuradunak herri-lurrak hobetzeko egiten dituen proiektuak Erroibarko Udalak berak onetsi beharko ditu, aldez aurretik 15 egunean jendaurrean eduki eta gero aurkezten diren alegazioak Udalak ebatzi ondoren.

66. Artikulua. Ordenantza honetako 55. artikuluan aipatzen den Nafarroako Gobernuaren onespentak, indarrrik gabe utziko ditu ukitutako herri-lurretan diren adjudikazioak, eta titularrei sorrarazten zaizkien kalte eta galerak, baita lurretan eginak dituzten hobekuntzak ere, ordaindu egingen zaizkie, zuzenbidez hala egokitzen bazaie.

VII. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK

67. Artikulua.-- Arau-hauste administratibotzat hartzen dira honako hauek:

- a) Aprobetxamendua zuzenean eta pertsonalki ez egitea..
- b) Herri-larreetan Bazkatzen den Aziendaren Osasuna Zaintzeari buruzko Foru Legean eta hori garatzen duen Erregelamenduan xedatua ez betetzea..
- c) Aprobetxamenduen kanonak Udalak finkatzen dituen epeetan ez ordaintzea..
- d) Herritarren arteko aprobetxamendua nabarmen gaizki egitea edo osorik ez egitea.

- e) Herri-lurra zertarako adjudikatzen den, beste zer baitetarako erabiltzea..
- f) Animalia hilak edo haien gorpuzkiak nonahi uztea.
- g) Larratzeko eremuak eta epeak ez errespetatzea.
- h) Erroibarko Udalaren baimenik gabe azienda sartzeara
- i) Ordenantza honetan xedatuari kontra egiten dioten egitate edo egintza guztiak.

68. Artikulua.- Arau-hauste horiek zehapen hauek izanen dituzte:

**ARAU-HAUSTE GUZTIAK UDALAREN HERRI-LURRETAKO BATZORDEAN
AZTERTUKO DIRA ETA UDALAREN OSOKO BILKURAK BERRETSIKO DITU.**

a), b), c), d), eta e) apartatuetakoa arau-hausteengatik emakida kenduko da 2 urterako, nahiz eta horrek ez duen galaraziko Nafarroako Gobernuaren organo eskudunak edo eskumena duten bestelako erakundeek zehapena ezartzea.

g) eta h) apartatuetakoa arau-hausteengatik debekaturik izanen da bi urteko epean azienda sartzeara udalaren bazkalekuetan eta, hala badagokio, egindako aprobetxamenduarengatik ordaindu beharreko urteko kanonaren bikoitza eta seikoitzaren arteko zenbatekoa.

Gainerako arau-hausteengatik, aprobetxamenduaren balioa halako bost gutxienez eta halako hamar gehienez ordainduko da, zehapen gisa. Balio hori zehazterik ez badago, 60,00 eurotik 2.500,00 eurora bitarteko zehapena ezarriko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Indarrean dauden aprobetxamenduen era eta baldintzak aprobetxamenduaren epea bukatu arte errespetatuko dira; hortik aitzina, Ordenantza honetan ezarritakoari egokituko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen: Ordenantza honetan arautu gabeko orotarako herri-lurrei buruzko Foru Legeetan ezarritakoa aplikatuko da.

Bigarrena: Ordenantza honek, behin-betiko onesten den egunean hartuko du indarra.